

En la Casa Consistorial del M I Ayuntamiento de Auritz/Burguete siendo las 18,30 horas del día 28 de abril de 2015, se reunió el Ayuntamiento al objeto de celebrar sesión extraordinaria con la asistencia de los Srs/as Concejales/as, Dña M^a Aranzazu Oyarbide Lapazarán, D^a M^a Roncesvalles Azanza Burusco, D. Juan Manuel Azanza Burusco, D. Alejandro Otegui Echeverria, D. Luis De Potestad Tellechea y D. Josu Martinez Rico, bajo la presidencia del Sr. Alcalde D. José Irigaray Gil actuando como Secretaria de la Corporación Doña Marisol Ezcurra Irure.

PRIMERO.- ALEGACIONES A PRESENTAR ANTE LA CONFEDERACIÓN HIDROGRÁFICA DEL EBRO EN RELACIÓN A LOS PROYECTOS DE ACTIVIDAD CLASIFICADA PROMOVIDOS POR SÍLICE NAVARRA EN EL VALLE DE ERRO.

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray que recibido de la Confederación Hidrográfica del Ebro notificación dando un plazo para presentar en su caso, alegaciones u observaciones, a los proyectos de explotación minera de Aurizberri/Espinal, propone presentar las siguientes alegaciones preparadas por la bióloga D^a Camino Jaso León y que en resumen son las siguientes:

ALEGACIÓN 1: El dimensionamiento de las infraestructuras presentado en el proyecto no ofrece garantías de ser suficiente para evitar desbordamientos y vertidos contaminantes. Para un correcto dimensionamiento habría que considerar el régimen pluvio-nival característico de la zona, con caudales máximos debidos al deshielo.

ALEGACIÓN 2: La Regata Onbortzeta es un curso de aguas superficiales de suficiente importancia como para que no se considere en modo alguno la autorización de su soterramiento, lo que supondría la ocupación injustificable de un Dominio Público Hidráulico que debe ser protegido por su función hidráulica y sus valores naturales.

ALEGACIÓN 3: El proyecto no explica dónde se evacúan las aguas de contacto de la cantera tras pasar por la balsa de acumulación del hueco minero y ser bombeadas.

ALEGACIÓN 4: El dimensionamiento de las balsas de decantación situadas en el hueco minero y planta de tratamiento no contempla los fenómenos típicos del régimen pluvio-nival, siendo insuficientes.

ALEGACIÓN 5: No se valora la afección sobre el régimen de caudales las regatas aguas debajo de la zona de explotación en base a los cambios en el equilibrio Infiltración/Escorrentía que va a suponer la extracción del mineral.

ALEGACIÓN 6: No se considera valorado el impacto en el balance infiltración escorrentía ante los notables cambios en la cubierta vegetal que va a suponer al actividad extractiva.

ALEGACIÓN 7: Revisando la tabla de valoración de impactos del EIA, no se considera suficientemente valorado el impacto sobre la calidad del agua en los cursos principales aguas abajo que -aunque queden alejados de la zona de

extracción- pueden verse afectados directamente por la actividad extractiva y por la posibilidad de posibles vertidos de productos peligrosos o tóxicos.

Toma la palabra el concejal Sr. Martínez que no estando su grupo de acuerdo con las alegaciones propuesta por el alcalde Sr. Irigaray, y añadiendo el concejal Sr. De Potestad que no están de acuerdo en que se retiren los proyectos, da lectura al texto que a continuación se transcribe:

Respecto a la ALEGACIÓN 1: El dimensionamiento de las estructuras de drenaje presentado en el proyecto de Espinal se han realizado para unos caudales punta para un periodo de retorno de $T= 100$ años, aplicando el Real Decreto 975/2009, de 12 de junio, sobre gestión de los residuos de las industrias extractivas y de protección y rehabilitación del espacio afectado por actividades mineras, artículo 24, apartado 2 a) que prescribe 100 años para el cálculo de la máxima avenida previsible.

En el apartado 5.5 del Anexo IV Estudio Hidrológico e Hidrogeológico y en el documento de Memoria técnica: Actuaciones relacionadas con el Dominio Público Hidráulico del Proyecto de explotación de la concesión derivada de explotación "Blanca" y del proyecto de planta de procesado de arenas se presentan los caudales punta calculados para un periodo de retorno de $T= 100$ años se cita textualmente.

"A partir de los caudales máximos de avenida obtenidos que se han calculado para $T=100$ años (cálculo de caudales punta), se presentan ahora los cálculos justificativos de las estructuras de la red de drenaje para dichos caudales".

En las tablas que se adjuntan se presentan los caudales obtenidos en el proyecto, a partir del método hidrometeorológico de la Instrucción 5.2-IC Drenaje Superficial, de la Dirección General de Carreteras del Ministerio de Fomento, para un periodo de retorno de 100 años

- tabla 5.4. del Anexo IV Estudio Hidrológico e Hidrogeológico del Proyecto de explotación de la Concesión Derivada de Explotación "Blanca" y anteproyecto de planta de procesado de arenas

- tabla 1.4 del anexo II Cálculo caudales punta del documento de Memoria técnica: Actuaciones relacionadas con el Dominio Público Hidráulico del Proyecto de explotación de la concesión derivada de explotación "Blanca" y del proyecto de planta de procesado de arenas

Respecto a la ALEGACION 2: Tanto en el anexo IV Estudio Hidrológico e Hidrogeológico del proyecto como en el documento de Memoria técnica: Actuaciones relacionadas con el Dominio Público Hidráulico del Proyecto de explotación de la concesión derivada de explotación "Blanca" y del proyecto de planta de procesado de arenas se indica efectivamente el soterramiento de la regata Onbortzeta de dirección norte sur que atraviesa la zona de acopios e invernaderos. Para esta obra se solicitará permiso a la CHE y se hará un proyecto de detalle.

En cuanto a la ALEGACION 3: Al tratarse de un proyecto con vertido cero, efectivamente no se va a producir ningún vertido de aguas que estén en contacto con la actividad minera. Las escorrentías generadas en la cabecera superior al hueco minero (flujo 1) serán recogidas y canalizadas por una cuneta perimetral que discurre por el norte del hueco minero evitando la entrada de aguas de la ladera anexa al interior del hueco minero. Las aguas que son recogidas serán conducidas y reincorporadas aguas abajo de la zona de proyecto en condiciones naturales.

En el documento de Memoria técnica: Actuaciones relacionadas con el Dominio Público Hidráulico del Proyecto de explotación de la concesión derivada de explotación "Blanca" y del proyecto de planta de procesado de arenas presentado en diciembre de 2014, se cita textualmente:

"Las aguas de precipitación que caigan directamente sobre el hueco minero, serán acumuladas en una balsa de recogida y almacenamiento de pluviales, situada en el fondo de corta a cota 990 m s.n.m. Esta balsa servirá tanto para el almacenamiento como para la decantación de las aguas. Las aguas quedarán retenidas y almacenadas en esta balsa de fondo de corta. Estas aguas, una vez decantadas, podrán bombearse para su reutilización en el proceso de planta o para riego de viales u otros usos si fuera necesario".

Respecto a la ALEGACION 4: Las balsas dimensionadas en el proyecto son balsas para la retención y almacenamiento de aguas, que a su vez servirán también para la decantación pero no son balsas de decantación. Las instalaciones de decantación de finos son las que se dimensionan de acuerdo a la metodología del Método Racional, para el cálculo de caudales punta y a la Ley de Stokes para la superficie de decantación necesaria para una partícula mínima dentro de las balsas de decantación.

Para la balsa del área extractiva se ha calculado una dimensión máxima para la recogida de las escorrentías, para el volumen de una precipitación máxima ordinaria del orden de 74 mm en 24 horas, correspondiente al período de retorno de $T= 2$ años, sobre la superficie de una fase completa de explotación de unos 148.552 m². Esto es equivalente a un volumen resultante de unos 10.992 m³, que supone una zona deprimida de unos 57 m de lado y 3,5 m de profundidad.

En la zona de instalaciones de planta se ha diseñado una balsa de recogida y almacenamiento de pluviales con una superficie de más de 2.300 m². Esta balsa estará dimensionada para recoger las aguas pluviales que discurran por la plataforma de planta y por la zona de invernaderos y acopio temporal de estériles. El volumen de aguas que llegará a la balsa de pluviales será de 5.131 m³/año calculado en el balance anual de las aguas (demanda/disponibilidad). La balsa tendrá una capacidad de 5.200 m³, por lo que esta perfectamente dimensionada para el almacenamiento de las aguas que se generen en la zona de planta para un año tipo medio. La balsa tendrá un resguardo de 0,5 metros (caballones de seguridad de material compacto) por lo que el volumen de almacenamiento de la misma será mayor. Se podrá

realizar si se quiere una protección con hormigón en masa a lo largo de toda su longitud, evitando así el aplastamiento debido a la presión producida por los muros de la balsa.

Con este planteamiento, las balsas tanto de planta como las de la zona minera están adecuadamente dimensionadas para almacenar ese volumen de agua sin producirse vertido alguno al medio. Además las aguas de la balsa de la planta y de la zona minera serán bombeadas y reutilizadas en el proceso de planta y otros usos.

Respecto a la ALEGACION 5: La mayor parte de la zona del hueco minero se adentra en la cuenca de la regata Mendiandi e intercepta una parte en la cabecera de dicho cauce. La zona extractiva de proyecto (hueco minero) que ocupa esta cuenca tiene una superficie de 14,58 ha. En esta cuenca también se incluyen las tres pistas de acceso al hueco minero donde se han colocado tuberías bajo pista (obras de fábrica) en los tramos de intersección del cauce con las pistas.

La zona extractiva afectará tan sólo a una pequeña parte de la cabecera de la regata Mendiandi. El drenaje de la zona de la explotación se realiza hacia el arroyo Mendiandiko, que discurre por el flanco oeste de la zona de proyecto y se incorpora al río Erro por su margen izquierda.

La explotación se realiza por encima del nivel freático por lo que no se va a producir afección directa a las aguas subterráneas. No se ha valorado por tanto la afección sobre el régimen de caudales ya que no se van a producir cambios importantes en el equilibrio infiltración/escorrentía.

En cuanto a la ALEGACION 6: La extracción de la cubierta vegetal en la zona extractiva, como en toda explotación minera a cielo abierto, va suponer una modificación en el balance infiltración-escorrentía. En el caso de este proyecto, de reducidas dimensiones y en donde la zona de actuación presenta elevadas pendientes y el sustrato rocoso presenta una permeabilidad baja, la afección a la recarga de acuíferos va a ser poco significativa. El agua de escorrentía del hueco queda controlada por los correspondientes canales internos, que reducen la energía de esas aguas en caso de aguaceros importantes y las reconducen a la balsa de fondo.

Por último y respecto a la ALEGACION 7: Se trata de un sistema de drenaje con vertido cero. Las aguas de contacto que se generen en la zona minera y en las instalaciones de planta no generarán ningún tipo de vertido a cauces próximos.

Se ha presentado en el documento de Memoria técnica: Actuaciones relacionadas con el Dominio Público Hidráulico del Proyecto de explotación de la concesión derivada de explotación "Blanca" y del proyecto de planta de procesado de arenas con fecha de diciembre de 2014 un Plan de Control y Vigilancia del medio hídrico (véase capítulo 8).

El programa de control se basa en dos objetivos:

1. En una red de puntos de control de las aguas superficiales y subterráneas.

2. En unos listados de sustancias y parámetros a controlar, con sus límites de referencia.

Los puntos de control del sistema que se han establecido son los siguientes:

1. Caudales de entrada a las balsas de pluviales de mina y planta.
2. Caudales de los sondeos de abastecimiento de la planta de tratamiento.
3. Aforos en cauces del entorno.
4. Manantiales del entorno de la zona de proyecto
5. Regata Mendiakulo aguas abajo de la zona extractiva (50 m aguas abajo).
6. Barranco Aldaparrako Errea (50 metros aguas abajo).
7. Barranco Mugaka Larrea (50 m aguas arriba y aguas abajo de la zona de instalaciones de planta).

En conclusión y a modo de reflexión, nos parece poco ético, que alguien que va a dejar el Ayuntamiento haga estas alegaciones, las cuales van a costar dinero al ayuntamiento y a su vez no van encaminadas a aportar mejoras o a solventar déficit del proyecto sino que van encaminadas a entorpecerlo.

Tanto es así, que el proyecto no afecta a Burguete, y además la menor afección a nuestro entender es al sistema hídrico, puesto que la precipitación en la zona es del orden de 1500 litros año.

Se entendería estas alegaciones en una zona como la Bardena, en la cual la afección hídrica podría ser una afección evidente, por lo tanto el alcalde pone en cuestión a los técnicos de la confederación hidrográfica y a los de más de 10 departamentos que intervienen en el tema de aguas, los cuales se rigen por las normas y la ley.

En el pasado pleno el alcalde Sr. Irigaray dijo que las alegaciones van encaminadas a mejorar proyectos, y queda mas que patente que las que ha puesto encima de la mesa no van encaminadas a mejorarlos si no a entorpecerlos y a desestimarlos.

En la vida hay que ser consecuente y claro y no ser oscurantista, si el alcalde Sr. Irigaray está en contra del proyecto debería decirlo públicamente, pero no intentar manipular a los vecinos con la salva guarda del entorno, del patrimonio comunal y de que este proyecto es de unos desalmados piratas o que no hay información sobre el mismo.

Nosotros como hemos dicho siempre, estaremos a favor de todo proyecto que genere riqueza, cohesión social, empleo, que respete escrupulosamente la legislación medioambiental y que el control sobre ellos por parte del ente local y foral sean meticulosos y exhaustivos.

Todo esto acompañado de información clara y transparente con los pros y los contras a los vecinos y vecinas, sobre este o de cualquier otro tipo de proyecto de esta importancia, para que sean ellos los que validen o invaliden a través de una consulta social. El concejal Sr. De Potestad, reitera que no están de acuerdo con que se solicite que se retire el proyecto.

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray que contesta que en cuatro años es la primera vez que traen algo, cuando su compromiso había sido que iban a presentar información al respecto. Le extraña que en la sesión de 2 de marzo

el concejal Sr. Martínez dijese que desconocía la magnitud del proyecto y en esta sesión presente esta exposición. Durante los últimos cuatro años la Agrupación Aranandi lo que ha hecho ha sido recoger información y ponerla a disposición de todo el mundo y que viendo que faltaba un informe jurídico es por lo que se encargó al despacho de Beaumont Aristu, ya que lo que no es de recibo es trasladar la responsabilidad de semejante proyecto a dos alcaldes para que den autorización al mismo. El grupo del PNV lo que ha hecho es cuestionar la profesionalidad de Beaumont Aristu Abogados, En este punto toma la palabra el concejal Sr. De Potestad que dice que en ningún momento han cuestionado la profesionalidad de Beaumont como se puede comprobar escuchando sus grabaciones. El alcalde Sr. Irigaray responde que si se ha cuestionado dicha profesionalidad ya que siempre han dicho que el informe, antes de que llegara, iba a ser negativo como si trabajaran a capricho del solicitante.

Por otro lado, también él está de acuerdo en el proyecto si se cumplieran todos los requisitos mencionados por el concejal Sr. Martínez, pero de hecho ha habido informes negativos por parte de los técnicos de medio ambiente y el Sr. Pedro Zuazo Onagoitia no ha hecho caso de los mismos y firmó la autorización para el permiso de investigación en Espinal.

Tras el debate, se acuerda con cinco votos favor (Srs/as Azanza, Oyarbide, Otegui, Azanza e Irigaray) y dos en contra (Srs. Martínez y De Potestad).

SEGUNDO.- MOCIÓN QUE LA COORDINADORA NAVARRA DE PUEBLOS POR LA MEMORIA “AMAPOLA DEL CAMINO” PARA EL TRASLADO DE LOS RESTOS MORTALES DE MOLA Y SANJURJO Y CONTRA LA APOLOGÍA DEL FRANQUISMO.

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray que previamente a dar paso a la votación sobre la moción presentada por la Coordinadora Navarra de Pueblos por la Memoria “Amapola del Camino”, expone que entiende que se debe aprobar la misma por que moralmente no se deben permitir actos de enaltecimiento de aquel levantamiento ilegítimo y en protesta contra los insurgentes del 36 se deben llevar a cabo acciones para mostrar nuestra repulsa a todos aquellos que hacen apología del franquismo. Entre otras cosas, no se debe olvidar que en ayuntamientos cercanos al nuestro se incumple reiteradamente la Ley de Símbolos y de Memoria Histórica. Así, Abaurrea Baja, Valle de Arce y Valle de Erro, lo hacen ostentando el escudo de Navarra con la cruz laureada de San Fernando distinción otorgada por el General Franco en agradecimiento a la colaboración de Navarra en el golpe militar y Garralda, Valcarlos y Orbaizeta manteniendo lápidas donde figuran inscritos los nombres de los fallecidos en el bando golpista y frases enaltecendo el alzamiento militar.

Tras lo cual, se acuerda por unanimidad aprobar la siguiente moción:

“Desde la Coordinadora de Pueblos por la Memoria, ante el reiterado incumplimiento de la legislación vigente: Ley de la Memoria Histórica, Ley de Símbolos de Navarra y Ley Foral sobre Memoria Histórica de noviembre de 2013, queremos expresar nuestra preocupación por la falta de responsabilidad democrática de las instituciones y del arzobispado. Por lo que:

- *Nos dirigimos al Ayuntamiento de Auritz/Burguete, para recordar que en Navarra se sigue enaltecendo y haciendo apología del franquismo. Apología que nos recuerda la impunidad del régimen franquista y sus responsables. Ha pasado demasiado tiempo, como para que, los que defendieron la democracia y al legítimo gobierno de la República, así como sus descendientes, tengamos que seguir soportando la imposición de la presencia en nuestras vidas y entornos de los golpistas y asesinos.*

CONSIDERANDO:

- *Que la Hermandad de Caballeros de la Cruz tiene sus actos en la Cripta que, junto con una parte de los sótanos, es propiedad de la Iglesia Diocesana. En concreto, todos los meses celebra en la misma una misa en recuerdo de lo que se denominó como “Cruzada”.*

- *Que con carácter “reglamentario”, cada 19 de Julio se celebra un funeral en conmemoración del levantamiento golpista, y en homenaje a los enterrados en la Cripta, entre los que se encuentran los Generales golpistas Sanjurjo y Mola.*

- *Que a día de hoy rigen normas como la Ley de Memoria Histórica 52/2007 de 26 de Diciembre y la Ley Foral 33/2013 de 26 de Noviembre, de reconocimiento y reparación moral de las ciudadanas y ciudadanos navarros asesinados y víctimas de la represión del golpe militar de 1936.*

- *Que estos actos que denunciarnos resultan ofensivos a la memoria de los asesinados y víctimas del golpe militar, así como a sus familiares y sociedad navarra en general.*

- *Que esta celebración en la Cripta del llamado “Monumento a los Caídos” es una verdadera apología del terrorismo, entendiendo por apología la concurrencia de personas que ensalzan el crimen o enaltecen a sus autores.*

- *Que el acto que reseñamos nada tiene que ver con la expresión de religiosidad o de fe que respetamos, sino más bien al contrario, con la exaltación de los ideales legitimadores de la violencia del golpismo, del crimen y del asesinato.*

- *Que la mayoría social rechaza el régimen franquista y es favorable a la eliminación de toda la simbología franquista.*
- *Y que tenemos derecho a exigir la eliminación de la simbología franquista, no solamente por imperativo legal, sino también, y sobre todo, por esa demanda social mayoritaria.*

Solicitamos que, tomando en consideración lo aquí expuesto, se asuman los acuerdos que a continuación se detallan.

SE ACUERDA INSTAR AL ARZOBISPADO PARA QUE:

- Se impida cualquier tipo de celebración, religiosa o de cualquier otra índole, que guarden relación con actos propios del levantamiento golpista de 1936 en la Cripta de su propiedad, sita en el llamado "Monumento a los Caídos", donde se contienen los restos mortales de los Generales golpistas Mola y Sanjurjo.

- Se disponga el traslado de los restos mortales de los Generales sitios en dicha Cripta al lugar privado que se considere.

- Se eliminen todas las consignas, grabados y gráficos existentes en dicha Cripta con mención expresa al levantamiento militar.

- Se proceda a impedir el uso de dicha Cripta por parte de la Hermandad de Caballeros Voluntarios de la Cruz, en tanto en cuanto dicha Hermandad persista en celebraciones como las ya relatadas."

TERCERO.- SORTEO DE MESAS PARA LAS ELECCIONES MUNICIPALES, CONCEJILES Y AL PARLAMENTO DE NAVARRA DE 24 DE MAYO DE 2.015..

Abierto el Acto se procede al Sorteo para nombramiento de la mesa electoral, para las Elecciones Municipales, Concejiles y al Parlamento de Navarra que se celebrarán el próximo 24 de Mayo de 2.015 con el siguiente resultado.

MESA AURITZ-BURGUETE

MESA I

PRESIDENTE: CARLOS ALBERTO GURPEGUI JAUQUICOA

PRIMER SUPLENTE DE PRESIDENTE: MAYALEN DUFUR DE YNCHAUSTI

SEGUNDO SUPLENTE DE PRESIDENTE. ANA ISABEL ERNETA ERRO

1º VOCAL: BERNARDETTE ECHENIQUE LAXAGUE

PRIMER SUPLENTE 1º VOCAL: ANA ASTIZ LARRALDE

SEGUNDO SUPLENTE 1º VOCAL: PAULA ETCHEPARE LARRALDE

2º VOCAL: MARIA PILAR LARRALDE AYNETO

PRIMER SUPLENTE 2º VOCAL: MARIA DUFUR MENDIVIL

SEGUNDO SUPLENTE 2º VOCAL: IÑAKI XABIER YOLLER URDIROZ

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las 19,10 h. del mismo día, se levanta la sesión, de lo que doy fe.

Aurizko Udaletxean, 2015eko apirilaren 28an, 18:30ean, Udala bildu zen bilkura arrunta egiteko. Bertaratuak: M^a Roncesvalles Azanza Burusco, M^a Aranzazu Oyarbide Lapazarán, Juan Manuel Azanza Burusco, Alejandro Otegi Echeverría, Luis De Potestad Tellechea eta Josu Martinez Rico, bilkuraburu alkatea, Jose Irigaray Gil izan zen eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure.

LEHENBIZIKOA.- SILICE NAVARRAK ERROIBARREN SUSTATU DUEN JARDUERA SAILKATUEN PROIEKTUEN INGURUAN EBROKO KONFEDERAZIO HIDROGRAFIKOAN AURKEZTUKO DIREN ALEGAZIOAK.

Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta esan du Ebroko Konfederazio Hidrografikoak Aurizberriko meategiko ustiaketaren proiektuei alegazioak edo oharpenak egiteko epea zabalik dagoela jakinarazi duela eta proposatu du Camino Jaso Leon biologoak prestatu dituen honako alegazioak aurkeztea, laburbildurik hauek direla:

1. ALEGAZIOA: Proiektuan agertzen diren azpiegituren neurriek ez dute bermatzen urek gainezka ez egitea edo isurketa kutsagarririk ez gertatzea. Azpiegituren neurriak egokiak izateko bertako euri eta elur prezipitazioa hartu beharko litzateke kontuan, urtze-aldietako gehieneko emaria kontuan hartuz.
2. ALEGAZIOA: Onbortzetako erreka daraman ura garrantzizkoa da eta ezin da lurperatu, eremu publiko hidraulikoa justifikaziorik gabe okupatzea ekarriko bailuke eta erreka hori babestu behar baita daukan funtzioarengatik eta natur balioengatik.
3. ALEGAZIOA: Proiektuak ez du azaltzen non kanporatzen diren harrobiko urak putzutik pasatu eta ponpatuak izan ondoren.
4. ALEGAZIOA: Harrobiaren zuloan dauden dekantazio putzuen eta tratamendu planaren neurriek ez dute kontuan hartzen bertako eurien eta elurteen fenomeno tipikoak, eta ez dira neurritz nahikoak.
5. ALEGAZIOA: Ez da baloratzen harrobitik beherako erreken ur erregimenarengan izango duen eragina, minerala ateratzeak iragazketa-isurketa orekan aldaketak ekarriko baitu.
6. ALEGAZIOA: Minerala ateratzeak landaretzan sortuko dituen aldaketen aurrean iragazketa-isurketaren balantzean sortuko den inpaktua ez da baloratzen.
7. ALEGAZIOA: Ingurumen Inpaktuko lkerketan agertzen den balorazio taula begiratuta, ez dago behar bezala baloratua harrobitik beherako uren kalitatean gertatuko den inpaktua, nahiz eta urrun geratu, eragina zuzenean jasan dezaketelako eta produktu arriskutsu edo toxikoak isuri ahal direlako.

Martinez zinegotziak hitza hartu du eta esan du bere taldea ez dagoela alkateak, Irigaray jk., aurkeztu dituen alegazioekin ados, eta De Potestad jk. gaineratu du ez daudela proiektuak erretiratzearekin ados, eta Martinez zinegotziak testu hau irakurri du:

1. ALEGAZIOARI dagokionez: Aurizberriko proiektuan aurkeztu diren drainatze egituren dimentsioa ur emari gehien ematen denerako da, itzulera aldia $T=100$ urte delarik, meategiko jarduerak ukitutako eremua babestu eta lehengoratzeko ekainaren 12ko 976/2009 Errege Dekretuaren 24. artikulua 2 a) zatian xedatutakoari jarraituz, horretan gehieneko ur emaria kalkulatzeko 100 urte kontuan hartzen baita,

Ikerketa Hidrologikoa eta Hidrogeologikoaren IV Eranskinaren 5.5 zatian eta Memoria teknikoaren dokumentuan: Ur Jabari Publikoarekin zerikusia duten jarduketak "Blanca" ustiaketarekin lotutako emakida ustiatzeko proiektua eta hareak prozesatzeko plantaren proiektua

$T=100$ urteetarako kalkulatu diren ur emari gehienak oinarri hartuta, emari horien drainatze-sareko egiturak justifikatzeko kalkuluak aurkezten dira.

Ondoren dauden tauletan proiektuan lortu diren ur-emaria daude, Sustapen Ministerioaren errepideetako Zuzendaritza Orokorreko 5.2-IC Agindua, Gainazaleko Drainatzearen metodo hidrometeorologikoa erabilia, 100 urteko itzulera aldirako.

- "Blanca" ustiaketarekin lotutako emakida ustiatzeko proiektuaren Ikerketa Hidrologikoa eta Hidrogeologikoa eta hareak prozesatzeko plantaren proiektua izeneko IV. Eranskinaren 5.4 taula.

- Memoria teknikoaren dokumentuaren Ur-emariaren II Kalkuluaren 1.4 eranskinaren taula. Ur Jabari Publikoarekin zerikusia duten jarduketak "Blanca" ustiaketarekin lotutako emakida ustiatzeko proiektua eta hareak prozesatzeko plantaren proiektua

2. ALEGAZIOARI dagokionez: Ikerketa Hidrologikoa eta Hidrogeologikoaren IV Eranskinaren eta Memoria teknikoaren dokumentuan: Ur Jabari Publikoarekin zerikusia duten jarduketak "Blanca" ustiaketarekin lotutako emakida ustiatzeko proiektua eta hareak prozesatzeko plantaren proiektua, Onbortzetako erreka lurperatzeko asmoa aipatzen da, erreka hori materiala pilatzeko eremua eta negutegian jarriko diren tokia zeharkatzen du. Hori egiteko baimena eskatuko zaio EKH eta xehetasun proiektua egingo da.

3 ALEGAZIOA: proiektu honetan isurketarik ez dagoenez, ez da harrobiaren jarduerarekin zerikusia duten ur isurketarik egongo. Harrobiko zuloaren goiko aldean sortuko diren isurketak (1 fluxua) zuloaren iparraldea zeharkatzen duen arketatik bildu eta bideratuko dira, zulora urak sartzea saihesteko. Bildutako urak proiektua hartzen duen eremutik beheitiago bideratuko dira, baldintza normaletan.

Memoria teknikoan: Ur Jabari Publikoarekin zerikusia duten jarduketak "Blanca" ustiaketarekin lotutako emakida ustiatzeko proiektua eta hareak prozesatzeko plantaren proiektuarekin zerikusia duten jarduketak, 2014ko abenduan aurkeztua, honakoa dio:

"Harrobiko zuloan eroriko diren euri-urak atzeko partean, 990 metroko altueran egonen den putzu batean bilduko dira. Putzu horretan urak bildu eta dekantatzeko erabiliko da. Urak atzeko aldean egonen den putzu horretan bilduko dira. Behin dekantatu ondoren, ponpatuko dira prozesuan edo bideak ureztatu edo bestelako gauzetarako berrerabiliz.

4 ALEGAZIOARI dagokionez: proiektuan aipatzen diren putzuak urak biltzeko dira eta dekantatzeko ere balioko dute, baina ez dira dekantatzeko putzuak. Meheak dekantatzeko instalazioak Metodo Arrazionalaren arabera daude pentsatuak.

Materiala ateratzeko eremuan egonen den putzua euri uren bilketarako gehieneko neurria kalkulatu da, 24 ordutan 74 mmko prezipitazioa kontuan hartuz, 2 urteko itzulera aldirako, eta ustiaketa iraun bitartean 148.552 m²ko azalera kontuan hartuz. Horrek 10.992 m³ egiten du, 57 metroko luzera eta 3,5 metroko sakontasuna.

Instalazioen eremuan euri urak biltzeko putzua diseinatu da, 2.300 m² baino gehiagoko azalerakoa. Euri uren putzura iritsiko den ur bolumena urtero 5.131 m³koa izango da, uren urteko balantzearen arabera kalkulatu (eskaera/erabilgarritasuna). Putzuak 5.200 m³ izango du, beraz eremu horretan urtean bildu ahal diren urak biltzeko neurri nahikoa du. Putzuak 0,5 metroko babes gunea izango du eta, ondorioz, biltzeko ahalmena handiago izango da. Nahi izanez gero hormigoizko babes eremua jarri ahalko da, putzuaren paretek sortutako presioaren ondoriozko arazoak saihesteko.

Modu horretan, bai plantako putzuak zein harrobiaren eremuan daudenak ura biltzeko behar bezala daude proiektatuak, ingurumenean inolako isurketarik ez gertatzeko. Gainera, plantako putzuetako eta harrobiko putzuetako urak ponpatuko dira eta berrerabiliko dira.

5. ALEGAZIOARI dagokionez: Harrobiaren zulorik handiena Mendiandiko errekaen arroan dago eta haren buruko zati bat hartzen du. Arroa okupatzen duen proiektuaren minerala ateratzeko eremuak 14,58 ha. ditu. Arro horretan harrobiko zulora iristeko hiru pista sartzen dira eta horietan tutueriak sartu dira erreka eta pistak bat egiten duten tokietan.

Minerala ateratzeko eremuak Mendiandiko erreka buruaren zati txiki bat besterik ez du ukitzen. Ustiaketa eremuaren drainatzea Mendiandiko erreka egingo da.

Ustiaketa maila freatikoren gaintik egingo da, beraz, ez du eragingo lur peko uretan. Beraz, ez da ur erregimenean izango duen eragina baloratu, ez baita ia aldaketarik gertatuko infiltrazioa eta isurketaren artean.

6. ALEGAZIOARI dagokionez: Minerala aterako den eremuan landaretza kenduko da, aire zabaleko edozein meategi ustiaketaren kasuan bezala, eta

infiltrazioa eta isurketaren arteko orekan aldaketa ekarriko du. Proiektu honen kasuan, neurri txikikoa denez eta malda handiak dituenez eta iragazkortasuna baxua denez, eragin txikia aurreikusi da. Zuloan bilduko den isurketako ura barneko bideek kontrolatuko dute, euri jasa handiak gertatzen direnean haien indarra gutxituz eta atzealdeko putzura eramanez.

Azkenik 7. ALEGAZIOari dagokionez: isurketarik ez duen drainatze-sistema da. Meategiaren eremuan eta plantako instalazioetan pilatuko diren urek ez dute inolako isurketarik eramango hurbileko erreketara.

Memoria teknikoaren dokumentuan aurkeztu dira: Ur Jabari Publikoarekin zerikusia duten jarduketak "Blanca" ustiakekin lotutako emakida ustiatzeko proiektua eta hareak prozesatzeko plantaren proiektuarekin zerikusia duten inguru hidrikoaren Kontrol eta Zaintza Plana, 2014ko abenduan aurkeztua (ikus 8. Kapitulua)

Kontrol programak bi helburu ditu:

1. Lur gaineko eta lur azpiko uren kontrol-guneen sarean.
2. Kontrolatu beharrekoko sustantzia eta parametroen zerrendetan, bere erreferentzia mugak barne.

Ezarri diren kontrol-guneak hauek dira:

1. Harrobiko eta plantako euri-urak biltzen dituzten putzuetara sartzen diren emariak.
2. Tratamendu plantako hornidura zundaketen emariak.
3. Inguruko erreketako edukiera.
4. Proiektuaren inguruko iturriak
5. Mendiaundiko erreka, minerala ateratzeko eremutik beheiti (50 m beheiti)
6. Aldaparriko Errekako sakana (50 metro beheiti)
7. Mugako Larreko sakana (plantako instalazio eremutik 50 metro goiti eta 50 m beheiti).

Bukatzeko eta hausnarketa gisa, ez zaigu egokia iruditzen udala utzi behar duenak alegazio hauek egitea, Udalarentzako gastua izateaz gain ez dutelako proiektua hobetu edo gaizki dauden gauzak konpontzeko asmorik, baizik eta trabak jartzea.

Are gehiago Auritzen eraginik ez baitu eta eragin gutxien uren sistemarengan dutelako, eremuko prezipitazioa urtero 1500 litrokoa izaten baita.

Alegazio horiek Bardeetan egitea ulergarria da, eragina handia izan zitekeelako, hortaz, alkateak konfederazio hidrografikoko teknikariak zalantzan jartzen ditu, bai eta gaian parte hartzen duten 10 departamentu baino gehiago ere, horiek araei eta legeei kasu egitera behatuak daudelako.

Aurreko osoko bilkuran alkateak, Irigaray jk., zioen alegazioak proiektuak hobetzeko egiten direla, baina kasu honetan argi dago trabak jartzeko egin direla.

Bizitzan kontsekuentea izan behar da, ez iluna, eta alkatea, Irigaray j., ez badago proiektuarekin ados publikoki esan beharko luke eta ez esan

ingurumenaren alde egin nahi duela eta proiektua bihozgabeko pirata batzuen dela esan edo horren gaineko informazioak ez dagoela esan.

Gu, beti esan dugun bezala, aberastasuna, gizartearen kohesioa eta lana dakarren proiektu ororen alde gaude, beti ere ingurumeneko legea errespetatzen badu eta bai toki entitatea zein foru entitatea haren gaineko kontrol zehatza eginez gero.

Hortaz gaina informazioa argia eta gardena baldin bada, bizilagunei aldeko eta kontrako argudioak emanez, bai oraingo proiektuari buruz zein bestelako proiektuei buruz ere, bizilagunei egindako kontsultaren bidez proiektua balioztatu edo ez balioztatzeko. De Potestad zinegotziak berriro dio ez daudela ados proiektua bertan behera uzteko eskaerarekin.

Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta erantzun du lau urtetan lehenengo aldia dela zerbait dakartzatela, bere hitza izan zenean horren gaineko informazioa ekarri behar zutela. Arraroa iruditzen zaio martxoaren 2ko bilkuran Martinez jk. esatea ez zuela proiektuaren gaineko informazioak eta oraingoan azalpen hauek ematea. Azkeneko lau urtetan Aranandi Taldeak informazioa bildu du eta jendearen esku jarri, eta txosten juridikoa falta zenez, Beaumont Aristu abokatuei eskatu zitzaizen txostena egitea, ez baita onargarria horrelako proiektu baten erantzukizuna bi alkateen esku uztea, beraiek baimena eman dezaten. EAJ taldeak Beaumont Aristu abokatuen profesionaltasuna zalantzan jarri du. Oraingoan De Potestad jk. hitza hartu du eta esan du beraiek ez dutela Beaumont abokatuen profesionaltasuna zalantza jarri, bere grabazioak entzunez gero ikus daitekeen moduan. Alkateak, Irigaray jk., erantzun du profesionaltasun hori zalantzan jarri dela beti esan baitute txostena, egina egon baino lehen, ezezkoa izango zela, eskatzailearen nahietara lan egingo balute bezala.

Beste aldetik, bera ados egongo litzateke proiektuarekin Martinez jk. aipatutako baldintza guztiak betez gero, baina badaude ingurumeneko teknikarien txosten negatiboak eta Pedro Zuazo Onagoitia jk. ez ditu horiek kontuan hartu eta Aurizberriko ikerketa egiteko baimena sinatu zuen.

Eztabaidaren ondoren, erabaki da aldeko bost botoz (Azanza, Oyarbide, Otegui, Azanza eta Irigaray) eta aurkako bi botoz (Martinez eta De Potestad).

BIGARREN- “BIDEKO MITXINGORRIA” OROIMENAREN ALDEKO HERRIEN KOORDINAKUNDE NAFARRAK AURKEZTU DUEN MOZIOA, MOLA –SANJURJOREN GORPUZKIAK LEKUZ ALDATZEKO ETA FRANKISMOAREN APOLOGIA SALATZEKO.

Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta “Bideko Mitxingorria” Oroimenaren aldeko Herrien Koordinakunde nafarrak aurkeztu duen mozioa bozkatu aurretik, azaldu du onartu behar duela uste duela, moralki eta 36ko matxinatuen aurka ekimenak egin behar direla frankismoaren apologia egiten duten guztien salaketa egiteko. Besteak beste, ezin dugu ahaztu gure inguruko Udaletan Ikurren eta Memoria Historikoaren Legea behi eta berriro urratzen dela. Abaurrepean, Artzibarren eta Erroibarren dauden Nafarroako banderetako armarran San Fernandoren gurutze ohoratua agertzen da, hori

Franco jeneralak eman zion armariari Nafarroak kolpe militarrean emandako laguntza eskertzeko. Garralda, Luzaide eta Orbaizetan dauden zenbait hilarrietan kolpe militarra eman zuen taldeko hildako batzuen izenak eta kolpe militarra goraiatzeko duten esaldiak agertzen dira.

Ondoren, aho batez erabaki da mozio hau onartzea:

"Oroimenaren aldeko Herrien koordinakundea" ekimenean parte hartzen dugunok, indarrean dagoen legeria (Oroimen Historikoari buruzko Legea, Nafarroako Ikurrei buruzko Legea eta 2013ko azaroko Oroimen Historikoari buruzko Foru Legea) behin eta berriz urratzen dela ikusirik, gure kezka eta ezinegona adierazi nahi dugu. Hori dela eta:

Aurizko Udalera jo dugu, bertako udal taldeen bitartez, gogora ekartzeko Nafarroan oraindik frankismoaren gorespina eta apologia egiten dela. Hain zuzen, frankismoaren erregimenaren eta haren erantzuleen zigorgabetasuna gogorarazten digun apologia. Denbora gehiegi pasa da, demokrazia eta legezko Errepublikaren gobernua defendatu zutenek, eta berauen ondorengook, gure bizitzetan eta inguruetan kolpezale eta hiltzaileen presentziaren ezarpena jasaten segi dezagun.

KONTUAN HARTURIK:

- "Gurutzearen Zaldunak" kofradiako ekitaldiak, gaur egun ere, kriptan egiten dituztela, eta kriptan hau, zenbait soto bezala, Elizarena dela.
- Uztailaren 19arekin, kolpisten altxamendua eta kriptan lurperatuta daudenak gogoratu eta goraiatzeko, elizkizun bat egiten dela urtero. Lurperatutakoen artean, Sanjurjo eta Mola jeneral kolpistak daude.
- Gaur egun ondoko lege hauek indarrean daudela: 52/2007 Legea, abenduaren 26koa, Oroimen Historikoari buruzkoa, eta 33/2013 Foru Legea, azaroren 26koa, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei ezagutzea eta ordain morala ematekoa.
- Salatzen ditugun ekitaldi hauek kolpe militarren eraildakoak eta biktima oro iraintzen dituztela, baita berauen senitartekoak eta, oro har, nafar guztiak ere.
- "Hildakoen monumentua" delakoaren kriptan egiten duten ospakizun hau terrorismoaren apologia hutsa dela, apologiatzat krimena edo hiltzaileak goratzea hartzen bada behintzat.
- Aipatutako ekitaldiak kolpismoaren bortizkeria eta krimenak goraiatzeko egiten direla, eta ez daukatela zerikusirik gure errespetua merezi duten erlijioarekin eta fedearrekin.
- Gizartearen gehiengoa frankismoaren kontrako izan eta frankismoaren sinbologia kentzearen aldekoa dela.

- Frankismoaren sinbologia ken dezatela eskatzeko eskubidea dugula, ez legeak agintzen duelako bakarrik; baizik eta, eta batez ere, gizartearen gehiengoak halaxe eskatzen duelako.
- Orain arte azaldutakoa aintzat harturik, eskatzen dugu ondoren zehazten diren erabakiak har daitezela.

ARTZAPEZPIKUTZARI ONDOKOA ESKATU NAHI DIOGU:

- "Hildakoen monumentu" izeneko kriptan (bertan Mola eta Sanjurjo jeneral kolpisten gorpuzkiak gordetzen dira) galaraz dadin 1936ko altxamendu kolpistari lotutako edozein ospakizun egitea, nahiz erlijiosoa izan, nahiz beste mota batekoa izan.

- Kriptan dauden jeneralen gorpuzkiak leku pribatu batera eramateko.

- Kripta horretan dauden aipamen, grabatu eta altxamendu militarra gogorarazten duen oro bertatik ken daitezela.

- Salatutako ekitaldiak egiten jarraitzen den bitartean, galaraz dakiola Gurutzearen Zaldun boluntarioen kofradiari kripta hori erabiltzea.

HIRUGARREN- 2015EKO MAIATZAREN 24AN EGINGO DIREN NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEKOA ETA LEGEBILTZARREKO HAUTESKUNDE-MAHAIEEN ZOZKETA.

Bilkurari hasiera eman ondoren 2015eko maiatzaren 24an egingo diren Nafarroako Udal eta Kontzejuetako eta Legebiltzarreko Hauteskundeetako Mahaiko kideen izendapena egiteko zozketa egin da.

AURITZ-BURGUETE MAHAIA

I MAHAIA

MAHAIBURUA: CARLOS ALBERTO GURPEGUI JAUQUICOA

MAHAIBURUAREN LEHENENGO ORDEZKOA: MAYALEN DUFUR DE YNCHAUSTI

MAHAIBURUAREN BIGARREN ORDEZKOA: ANA ISABEL ERNETA ERRO

1go.. MAHAIKIDEA: BERNARDETTE ECHENIQUE LAXAGUE

1go. MAHAIKIDEAREN 1go. ORDEZKOA: ANA ASTIZ LARRALDE

1go. MAHAIKIDEAREN 2. ORDEZKOA: PAULA ETCHEPARE LARRALDE

2. MAHAIKIDEA: MARIA PILAR LARRALDE AYNETO

2. MAHAIKIDEAREN 1go. ORDEZKOA: MARIA DUFUR MENDIVIL

2. MAHAIKIDEAREN 2. ORDEZKOA: IÑAKI XABIER YOLLER URDIROZ

Eta gai gehiagorik ez zegoenez bilkurari bukaera eman zaio 19,10ean, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.